



## GAZTERIA ETA KIROL ZUZENDARITZAREN KIROL ZERBITZUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN 2015-2017 PLAN ESTRATEGIKOA

### 1. SARRERA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO), zioen azalpenean, oro har, eta zehazki, 8. artikuluan, xedatzen du herri-administrazioek Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoa (aurrerantzean, DLPL) egin behar dutela. Bertan zehaztuko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzazio-iturriak ere. Hala, publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta bazterkeriarik ezaren printzipioak bermatuko dituzte. Baita baliabide publikoen helburuak eraginkorrak izatea eta eraginkortasunez esleitzea eta erabiltzea ere.

Era berean, DLOko 8. artikulua, DLOren Araubidean garatutakoa eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, DLOren bigarren azken xedapenean eta aipatu Errege Dekretuaren lehen azken xedapenean ezarritakoarekin bat etorritz, oinarrizkoa da, xedapen horietan zerrendatutako aginduak izan ezik.

Estatuko araudi hau Euskal Autonomia Erkidegoko jarduketan eremuan aplikatzean sortzen den eztabaidari dagokionez, honako hau xedatzen du Administrazio Publiko eta Justizia Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak duela gutxi eginiko txosten batek gogoeta juridikoetan:

"17. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (aurrerantzean, EAEJAN), Euskal Autonomia Erkidegoan 38/2003 Legeak duen aplikazioa ukatu gabe, "diru-laguntzen plan estrategikoa" ez zuen ezinbesteko baldintzatzat jotzen 8.1 artikuluan adierazten den bezala EAEko udalerrietan eginiko diru-laguntzen deialdiak baliozkoak izateko...

...Nolanahi ere, Auzitegi Nagusiak (aurrerantzean, AN) EAEJANek emandako epaiekin bat datozen hainbat epaietan (besteak beste, 2012ko ekainaren 26ko eta abenduaren 4ko Auzitegi Nagusiaren epaia eta 2013ko urtarrilaren 28ko eta apirilaren 16koa), irizpide hau ezarri du 38/2003 Legeko 8.1 artikuluekin lotuta: "*Arau honetatik, ahalegin dialektikorik gabe, bi ondorio atera daitezke: Plan Estrategikoa kasuan kasuko edozein diru-laguntza baino lehen ezarriko da; eta araua aginduzkoa eta kategorikoa izango da. Uste dugu Plan Estrategikoa baino lehen exijituko diren manuak ez direla tangentialak eta sistematikoak, instantziako epaian esaten den bezala, diru-laguntza arautu baino lehenagoko oinarrizko baldintzak baizik. Hala, beharrezkoa da kanpotik formalizatzea edo gauzatzea, eta formaltasun jakinik behar ez badu ere, berariaz definitu behar da identifikatu ahal izateko.*" EAEJANek ondoren emandako epaietan aplikatzen du dagoeneko jurisprudenzia hori (besteak beste, EAEJANen 2012ko azaroaren 6ko eta 2014ko otsailaren 18ko, urriaren 29ko eta abenduaren 19ko epaietan). Baina kasu honetan

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eginiko diru-laguntzen deialdiak direnez, EAEHONATBko 48 artikulua eta ondorengoak ez dira aplikazio-eremuan sartuko. Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioko epai horiek esaten dute 38/2003 Legea EAEko tokiko administrazioan aplika daitekeela.

18. EAEJANek, halaber, 38/2003 Legea aplikatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko diru-laguntzen deialdien aurka jarritako errekurtsioak ebazteko (besteak beste, EAEJANen 2009ko irailaren 16ko epaian -2013ko abenduaren 23ko Auzitegi Nagusiaren epaiaren bidez berretsia- eta 2014ko irailaren 16ko eta azaroaren 10eko epaietan); baina, era berean, EAEHONATBko 48. artikuluan eta ondorengoetan jasotako autonomiako araudia ere aplikatzen du, bata edo bestea lehenatasunez aplikatzearen inguruko eztabaidagai berezirik sortu gabe. Estatuko abokatuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko uztailaren 31ko Aginduaren (horren bidez, 2013an goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak deitu eta arautu dira) aurka jarritako errekurtsioan azalerratu da eztabaidagaia. 2015eko 21eko EAEJANen jasotzen da gorago adierazitako epaietan JAK ezarritako doktrina (gogora dezagun, EAEko udalerrietan eginiko diru-laguntzen deialdiei buruzkoak), 38/2003 Legeko 8.1 artikulua aginduz aplikatzearekin lotuta, eta, honako hau gaineratzen du: "38/2003 Legeko hogeita bigarren xedapen gehigarriaren edukiak ez du eragozten Auzitegi Nagusiak eginiko baieztapenen biribiltasuna... izan ere... arauak ez du Euskal Autonomia Erkidegoa haren aplikazio-eremutik bazter uzten, oso bestela, aplikazio hori berresten baitu. Berau ezartzean, EAEko Autonomia Estatutuko eta lurralde historikoetako antolamendu eta eskumenen esparruko berezitasunei erreparatuko zaie. Kasu honi dagokionez, Sala honek (sic) ez daki Euskal Autonomia Erkidegoko zein alderi eragin dion, zer ez den errespetatu eta noiz agindu den diru-laguntzak ezarri baino lehen plan estrategikoa egitea. Are zailagoa da hori hautematea, kontuan hartuta demandatuak berak onartzen duela 1/1997 Legegintzako Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzkoak, estatuko arauetan printzipio erabat parekideak jasotzen dituela". Argudio hori oinarri hartuta, aurkaratutako Agindua baliogabetzat jotzen du, ez datorrelako bat antolamendu juridikoarekin, diru-laguntza onetsi baino lehen ez zegoelako Plan Estrategikorik."

Txostenean ondorioztatzen da, besteak beste, aurreko gogoeta juridikoak aintzat hartuta, erkidego honetan DLO zuzenean aplikatzekoa dela, "*Estatuko oinarrizko araudia (38/2003 Legeko lehen azken xedapenean "Estatuko oinarrizko legeria" adierazpena erabiltzen da, hau da, adierazpen hori bera erabiltzen da berariazko eskumenak gauzatzeari dagokionez), diru-laguntzen esparruan, hasiera batean, EAEn zuzenean aplikatzekoa delako. Araudi horretako aginduren bat aplikatu ez izana justifikatzeko, arrazoitu egin beharko da ez dela bateragarria Euskal Autonomia Erkidegoko foru-araubidea arautzen duen xedapen bereziren batekin, txosten honen edukian adierazitakoarekin bat etorritz.*"

Hori guztia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako Kirol Zerbitzuak Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau egin du, DLOn ezarritakoari jarraikiz.

DPE kudeaketa-tresna bat da, programatikoa, eta ez da arau-mailakoa. Beraz, ez dakar eskubide edo betebeharririk balizko onuradunentzat. Eraginkorra izateko hainbat diru-laguntza lerro jarriko dira martxan, betiere, besteak beste, ekitaldi bakoitzean dagoen aurrekontu-erabilgarritasunari erreparatuta.

Era berean, plana sustatu duen sailak eginiko jarraipen-txostenen emaitzan eta Ekonomi Kontrolerako Bulegoak igorritako txostenen emaitzetan diru-laguntza lerro batzuk aurreikusitako helburuen lorpen-mailara edota inbertitutako baliabideen mailari dagokion lorpen-mailara iristen ez badira, aldatu eta horien ordean eraginkorragoak izango diren beste batzuk ezarriko dira, edo, hala badagokio, kendu.

## **2. ESPARRU SUBJEKTIBOA ETA DENBORAZKOA**

DPE honen baitan daude Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako Kirol Zerbitzuak kudeatzen dituen diru-laguntzak, dekretu honetan jasotako eskumenekin bat etorritik: 20/2012 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen. Bertan jasotzen dira jardun-arloak eta horien eginkizunak, eta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, besteak beste, kirolen jardun-arloa dagokiola xedatzen du.

Bestalde, 193/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, Gazteria eta Kirol Sailaren esku uzten du kirolarekin loturiko jardun-arloetan planak edo programak proposatzeko eginkizuna, betiere EAEko Administrazioak horien gaineko eskumena badu.

Denboraren esparruari dagokionez, DLOren Arautegiaren 11.4 artikularekin bat etorritik, DPEk hiru urteko indarraldia izango duten aurreikuspenak jasoko ditu. Salbuespen gisa jaso da eraginpeko sektorearen berezitasuna tarteko, beste iraupen bateko plan estrategikoa ezartzea. Hala, egoera berezirik jakinarazi ezean, DPE 2015-2017 epean egongo da indarrean.

## **3. HELBURU OROKORRAK**

14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, Euskadiko kirolarenak, kirola interes publikoko ekintza sozialtzat jotzen du, eta kirola egiteko guztion eskubidea aitortzen du. Hala, Legeak xedatzen du, jasotzen dituen printzipio nagusien artean, euren eskumen-eremuko botere publikoek bermatu egingo dutela aipatu eskubide hori behar bezala gauzatzea. Horretarako, besteak beste, printzipio hauek hartuko ditu oinarri: kirol-asoziazionismoa antolatzea eta sustatzea, kirolaren egitura pribatuak aintzatestea eta babestea, goi-mailako kirola sustatzea kirol-federazioen partaidetzaren bidez, lehiatzeko kirolak sustatzea, kirol-instalazioen sare ezin hobea bultzatzea, euskal kirola babestea estatuari eta nazioarteari begira, eta bertako kirol-modalitateak sustatzea.

Aurreko guztia aintzat hartuta, DPE egitean, helburu orokor hauek lortu nahi dira:

1. Gazteria eta Kirol Sailari politika publikoak planifikatzeko tresna ematea. Politika horiek erabilera publikoko edo interes sozialeko ekintzak sustatzea izango dute helburu, betiere haiei dagozkien eskumeneko arloekin lotura dutenak.
2. Kirolak jarduera ekonomikoaren sektore gisa duen potentziala baliatzea, ahalik eta errendimendu handiena lortzeko ekitaldi garrantzitsuetan; eta kirolaren eta kulturaren turismoa sustatzea, horretarako hainbat kirol- eta kultura-erakunderekin elkarlanean arituz.
3. Goi-mailako kirol-jarduerak sustatzeko eta horien praktika bultzatzeko arloarekin loturiko ekintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste arlo ekonomiko eta soziokultural batzuen ekintzak identifikatzea.
4. Ekonomia eta finantzaren ikuspuntutik, kudeaketa-tresna uniformeagoak definitzea, diru-laguntzen eraginkortasuna hobetu ahal izateko.
5. Gardentasunaren eta gobernu onaren jardunbideen ikuspuntutik, informazio publikorako sarbidea ahalbidetzea.

#### 4. DIRU-LAGUNTZEN LERROAK

##### 4.1. Lehiaketan bidez emandako diru-laguntzak

###### 4.1.1. Euskadiko Kirol Federazioei diru-laguntzak ematea

**- Helburuak:**

- 287/2000 Dekretuan, abenduaren 26koan (euskal kirol federazioen kirol-programetarako diru-laguntzak ematea arautzen du) xedatutakoa betetzea.
- Euskadiko kirol-federazioak finantzatzea urteko programa gauzatzeko. Horretarako, itzultzekoak ez diren diru-laguntzak emango ditu.
- Euskadiko federazioen sarea berrantolatzea. Horretarako, horien egitura eta funtzionamendua eraginkortasun handiena lortzeko egokituko dira. Ondoren, berriz ere definituko dute Euskadiko kirolaren eredu berria sortzeko izango duten eginkizuna.
- Administrazio-eremua sinplifikatzea, eskabideak baliabide elektronikoen bidez izapidetu ahal izateko eta beste administrazio batzuekin elkarlanean jarduteko, bereziki zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzeari dagokionez. Ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztuko dira.

**- Sektoreak:** Euskal Kirol Federazioak.

**- Epea:** urteko deialdia

**- Kostuak eta finantzazio-iturriak:** Diru-laguntzak jarraian adierazitakoaren kargura finantzatuko dira: IV. kapitulua "*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*", 4512 programa "*Kirolak*", 33 zerbitzua "*Gazteria eta Kirola*", zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik (Plan honen behin-behineko indarraldian onetsi dira). Horien

artean jasotzen da helburu hau: "*Kirol-elkarteen egitura: Euskadiko Kirol Federazioen kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzak*". 2015eko ekitaldiko deialdian, 2.350.000 euroko zuzkidura dago. Nolanahi ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak ezartzeko, aurrekontu-kontsignazioa behar da, baita, hala badagokio, deialdia egiteko oinarriak onestea ere. Azken batean, diru-laguntza oro emateko, beharrezkoa izango da aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko helburuak betetzea.

Diru-laguntzak federazioen aurrekontu osora iritsi daitezke, eta bateragarriak dira beste finantzazio-iturri batzuekin: kanpokoak, publikoak edo pribatua edota onuradunei eurei dagokiena (lizentziak ematearen ondorioz lortutako diru-sarrerak edo beste jarduera batzuk egitearen ondorioz lortutakoak.)

Dena den, finantzaketa horrek guztiak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua. Gain-finantzaketarik badago, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako aurrekontua orekatu arte.

- **Oinarri arautzaileen oinarrizko lerroak** Aipatutako 287/2000 Dekretuaren 3. artikulua ezartzen du urtero egingo dela, Kultura sailburuak emandako aginduaren bidez, agindu horretan araututako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia. Deialdi honetan, alderdi hauek jasoko dira:

- a) Deitutako laguntzak finantzatzeko erabiliko den aurrekontu-zuzkidura osoa.
- b) Eskerak aurkezteko lekua eta epeak.
- c) Laguntzen eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak.
- d) Laguntzak haztatzeko irizpideen haztapena.
- e) Emandako laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko egiaztagiriak.

d) eta e) atalak nabarmendu behar dira alderdi garrantzitsuenen artean.

Haztapan-irizpideei dagokienez, honako hauek hartuko dira kontuan: aurreko ekitaldian eskuratutako diru-laguntza, kirol-programa, federazioaren lizentzia duten kirolarien kopurua, euskararen erabilera, autofinantzaketa-maila eta goi-mailako kirolarien kopurua.

Ordaintzeko moduari eta epeari dagokienez, bi ordainketa egingo dira aldeztatik -betiere aurreko ekitaldian emandako diru-laguntza justifikatu ondoren-, eta azken ordainketa aurreratutako igorpenen zenbatekoak justifikatu ondoren.

- **Adierazleak:**

- Diru-laguntza jasotzen duten federazioen kopurua.
- Federazio bakoitzean federatuta daudenen kopurua.
- Federazioen autofinantzaketa-maila.

#### 4.1.2. Goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak

- **Helburuak:**

- Kirol-jarduna sustatzea goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzen dituzten EAEko klubak eta kirol-elkarteak finantzatzuz.

- Nazioarteko goi-mailako kirol-probetan kirolarien partaidetza sustatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko klubak, kirol-elkarteen eta goi-mailako kirolarien kopurua handitzen laguntzea.
- Kirolaren turismoa sustatzea. Horretarako, kirolak jarduera ekonomikoaren sektore gisa duen potentziala baliatuko da, ahalik eta errendimendu handiena lortzeko ekitaldi garrantzitsuetan.
- Administrazio-eremua sinplifikatzea, eskabideak baliabide elektronikoak bidez izapidetu ahal izateko eta beste administrazio batzuekin elkarlanean jarduteko, bereziki zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzeari dagokionez. Ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztuko dira.

**- Sektoreak:**

- a) Kirol-federazioak, kirol-klubak, kirol-taldeak eta kirola xede duten merkataritza-elkartek. Legez eraturik egongo dira, dagokien erregistroan inskribatuta, eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izango dute.
- b) Aurreko atalean aurreikusten ez diren beste erakunde batzuk. Legez eraturik egongo dira, dagokien erregistroan inskribatuta, egoitza soziala Euskal Autonomian izango dute, eta aldi-aldi edo noizbehinka kirol-modalitateen ekintzak antolatuko dituzte.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izanik kirol modalitateen inguruko jarduerak periodikoki edo aldi-aldi behin antolatzen dituzten pertsona fisikoak.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak.

**- Epea:** urteko deialdia.

**- Kostuak eta finantzazio-iturriak:** Diru-laguntzak jarraian adierazitakoaren kargura finantzatuko dira: IV. kapitulua "Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak", 4512 programa "Kirolak", 33 zerbitzua "Gazteria eta Kirola", Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik (Plan honen behin-behineko indarraldian onetsi dira). Horien artean jasotzen da helburu hau: "Kirol-lehiaketan antolaketa: goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak". 2015eko ekitaldi honetan, 245.000 euroko zuzkidura dago, hainbat urtetarako. 2015ean: 122.500 euro /2016an: 122.500 euro.

Nolanahi ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak ezartzeko, aurrekontu-kontsignazioa behar da, baita, hala badagokio, deialdia egiteko oinarriak onestea ere. Azken batean, diru-laguntza oro emateko, beharrezkoa izango da aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko helburuak betetzea.

Ekintza bakoitzeko diru-laguntzak ez du 20.000 euroko zenbatekoa gaindituko, eta bateragarriak izango dira beste finantzazio-iturri batzuekin: kanpokoak, publikoak edo pribatuak edota onuradunei euren dagokiena (lizentziak ematearen ondorioz lortutako diru-sarrerak edo beste jarduerak batzuk egitearen ondorioz lortutakoak).

Dena den, finantzaketa horrek guztiak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua. Gain-finantzaketarik badago, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako aurrekontua orekatu arte.

#### **- Oinarri arautzaileen oinarrizko lerroak**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko dira:

- Diruz lagundu daitezkeen goi-mailako kirol-lehiaketen baldintzak (nazioarteko eremua eta izaera, Nazioarteko edo Europako Federazio ateko edo Nazioarteko Profesionalen Ligako egutegi ofizialean sartzea, hainbat herrialdetako kirolarik parte hartzea...).
- Ez dira diruz lagunduko estatuko edo autonomiako lehiaketak.
- Eskaerak aurrez aurre edo baliabide elektronikoen bidez izapidetu ahal izango dira.
- Balorazio-irizpideak: Lehiaketaren edo probaren maila, proba kategoria absolutukoa den edo ez, olinpiaden programako lehiaketaren batean sartuta dauden edo ez, lehiaketan goi-mailako Euskadiko kirolariak parte hartzen duten...
- Diru-laguntza ordaintzeko modua: hainbat urtetarako denez, bi ordainketa egingo dira. Lehenengoan, diruz lagundutako zenbatekoaren erdia emango da, esleipenaren ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ondoren; eta, bigarrena (beste erdia), hurrengo ekitaldian, diru-laguntza justifikatu ondoren.

#### **- Adierazleak:**

- Eskaeren kopurua.
- Diruz lagundutako lehiaketen eta proben kopurua.
- Telematikoki izapidetutako eskaeren kopurua.

#### **4.1.3. Kategoria absolutuan nazioarteko kirol-lehiaketetan parte hartzeko diru-laguntzak**

##### **- Helburuak:**

- Kirol-jarduera sustatzea nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duten EAEko kirol-klubak eta -elkartek finantzatzearen bidez.
- Nazioarteko goi-mailako kirol-probetan kirolarien partaidetza sustatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko klubak, kirol-elkarteen eta goi-mailako kirolarien kopurua handitzen laguntzea.
- Administrazio-eremua sinplifikatzea, eskabideak baliabide elektronikoen bidez izapidetu ahal izateko eta beste administrazio batzuekin elkarlanean jarduteko, bereziki zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzeari dagokionez. Ondorioz, kostuak murriztu eta izapideak erraztuko dira.

- **Sektoreak:** kirola xede duten kirol-klubak, kirol-taldeak eta -elkartek.

Izaera juridikoa izango dute, legez eratuta egongo dira, dagokien erregistroan inskribatuta, eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izango dute. Kirol Federazioek ezingo dituzte diru-laguntza hauek jaso.

- **Epea:** urteko deialdia

- **Kostuak:** Diru-laguntzak jarraian adierazitakoaren kargura finantzatuko dira: IV. kapitulua "*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak*" kapitulua, 4512 programa "*Kirolak*", 33 zerbitzua "*Gazteria eta Kirola*", Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik (Plan honen behin-behineko indarraldian onetsi dira). Horien artean jasotzen da helburu hau: "*Kirol-lehiaketetan parte hartzea. Nazioartean kategoría absolutuko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak*". 2015eko ekitaldi honetan, 340.000 euroko zuzkidura dago, hainbat urtetarako. 2015ean: 210.800 euro /2016an: 129.200 euro.

Nolanahi ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak ezartzeko, aurrekontu-kontsignazioa behar da, baita, hala badagokio, deialdia egiteko oinarriak onestea ere. Azken batean, diru-laguntza oro emateko, beharrezkoa izango da aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko helburuak betetzea.

Jarduera bakoitzeko diru-laguntza, gehienez ere, 90.000 eurokoa izango da, eta diziplina ez olinpikoekin loturiko ekintza bakoitzeko diru-laguntzak, gehienez ere, 10.000 eurokoak izango dirakirolari bakoitzeko.

Bateragarriak izango dira beste finantzazio-iturri batzuekin, izan kanpokoak, publikoak, pribatuak nahiz onuradunei eurei dagozkienak (lehiaketa baten ondorioz lortutako diru-sarrerak edo beste jarduera batzuen ondoriozko lortutakoak).

Dena den, finantzaketa horrek guztiak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua. Gain-finantzaketarik badago, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako aurrekontua orekatu arte.

#### - **Oinarri arautzaileen oinarrizko lerroak**

Oinarri arautzaileetan, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko dira:

- Diruz lagundu daitezkeen goi-mailako kirol-lehiaketen baldintzak (nazioarteko eremua eta izaera, Nazioarteko edo Europako Federazio ateko edo Nazioarteko Profesionalen Ligako egutegi ofizialean sartzea, hainbat herrialdetako kirolarik parte hartzea...).
- Ez dira diruz lagunduko Euskadiko kirol selekzioen partaidetza duten lehiaketak.
- Eskerak aurrez aurre edo baliabide elektronikoaren bidez izapidetu ahal izango dira.
- Balorazio-irizpideak: Lehiaketaren o probaren maila, goi-mailako euskal kirolariek lehiaketan parte hartzen duten, aurrekontuarekin loturiko alderdiak, lehiaketen edo proben kopurua eta abar.



- Diru-laguntza ordaintzeko modua: hainbat urtetarako denez, bi ordainketa egingo dira. Lehenengoan, diruz lagundutako zenbatekoaren ehuneko hirurogeita bi emango da, esleipenaren ebazpena jakinarazi eta onartzeko epea igaro ondoren; bigarrena, berriz (zenbatekoaren gainerakoa), hurrengo ekitaldian emango da, diru-laguntza justifikatu ondoren.

**- Adierazleak:**

- Eskaeren kopurua.
- Diruz lagundutako lehiaketen eta proben kopurua.
- Parte hartzen duten kirolarien kopurua.
- Telematikoki izapidetutako eskaeren kopurua.

**4.2. Zuzenean emandako diru-laguntzak, DLOko 22. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik:**

Atal honetan honetan jasotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuei buruzko Legean izenez aurreikusitakoak nahiz salbuespen gisa emandakoak (interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioak tarteko daudenean edota, behar bezala justifikatuta, deialdi publikoa egitea zaila denean). Lehenengo kasuan, kirol-esparruko eskumeneko sailaren titularrak emandako aginduaren bidez formalizatuko dira diru-laguntzak. Bigarren kasuan sartzen direnak, berriz, Gobernu Kontseiluak emango ditu.

**- Helburuak:**

Diru-laguntza zuzenak eman ahal izango dira baldin eta kasuan kasuko proiektuak edo jarduerak deialdien lehiaketa askean sartu ezin badira (diruz lagunduko den ekintzaren berezitasuna dela eta). Xehetasunetan sartu gabe, besteak beste, jarraian adierazitako atalen batean oinarrituta:

- Komunikabideetan izan dezakeen oihartzunagatik eta Euskal Autonomia Erkidegoan ekar dezakeen ondorio ekonomikoagatik berezitasun handikoak diren kirol-ekitaldiak sustatzea.
- Bereziki errotuta dauden eta kirol-esparruan proiektuak gauzatzen dituzten nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan kirola sustatzea xede duten kirol-elkarteei laguntzea.
- Herritarrek eskura dituzten ekipamenduak eta zerbitzuak hobetzea, kirol-instalazioen egoera ona bermatzeko.

- **Epea:** Indarraldia kasuan kasuko diru-laguntzan zehaztutako xedapenetan aurreikusiko da.

- **Kostuak:** Diru-laguntza zuzenen zenbateko osoa aurrekontuei buruzko legeetan dagoen kontsignazioaren arabera izango da, urteko aurreikuspeni jarraikiz.

- **Finantzazio-iturriak:** Diru-laguntzak jarraian adierazitakoaren kargura finantzatuko dira: IV. kapitulua "*Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-*

*laguntzak*” edo VII. kapitulua *”Transferentziak eta kapital-eragiketarako diru-laguntzak”*.

Nolanahi ere, atal honetan aurreikusitako diru-laguntzak ezartzeko, aurrekontu-kontsignazioa behar da.

Bateragarriak izango dira beste finantzazio-iturri batzuekin, izan kanpokoak, publikoak, pribatuak nahiz onuradunei eurei dagozkienak (lehiaketa baten ondorioz lortutako diru-sarrerak edo beste jarduera batzuen ondoriozko lortutakoak).

Dena den, finantzaketa horrek guztiak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua. Gain-finantzaketarik badago, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako aurrekontua orekatu arte.

## **5. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Plan hau urtero eguneratuko da, 2016an eta 2017an. Ekitaldi horietako apirilaren 30a baino lehen eguneratuko dira, EAEko aurrekontuei buruzko lege orokorretan ezarritakoa aintzat hartuta.

Plan honetatik eratorritako emaitzak Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak kontrolatu eta ebaluatuko ditu.

## **6. AURREKO PLAN ESTRATEGIKOEN EBALUAZIOAREN EMAITZAK**

Ez dago lehenagoko plan estrategikorik.

## **7. DPE ONESTEA ETA ARGITARATZEA**

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak emandako aginduaren bidez onetsiko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere aurretiaz Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak proposatuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 7 c) artikuluekin bat etorriz.

Era berean, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako Kirol Zerbitzuaren 2015-2017 DPE Euskadi.net webgunean argitaratuko da, eta araubide juridikoan unean une informazioarekin eta gardentasunarekin lotuta aurreikusitako bestelako xedapenak aplikatuko dira.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua  
CRISTINA URIARTE TOLEDO